



**OINARRI ESPEZIFIKOAK, ZEINEN BIDEZ ARAUTZEN BAITA ARABA GARAPEN AGENTZIA
SA SOZIETATEAREN ZERBITZURA PROIEKTUAK ETA OBRAK GARATZEKO ETA
KUDEATZEKO TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BETETZEKO LANGILE LAN KONTRATUDUNEN
HAUTAKETA**

(deialdiaren kodea: 202501aad)

LEHENENGO OINARRIA.- LANPOSTUAREN OINARRIZKO EGINKIZUNAK:

Sozietatearen arduradun teknikoaren mende egongo da hierarkikoki, eta honako eginkizun hauetakoren bat bete ahal izango du edo hartan lagundu:

- Urbanizazio eta eraikuntza proiektuak gainbegiratzea, idaztea eta kudeatzea, bai industria eremuan, bai bizitegi eremuan.
- Plangintzako dokumentuak idaztea, egiten ari direnean gainbegiratzea eta kudeatzea.
- Industria eta bizitegi eremuetako urbanizazio eta eraikuntza obren garapenean parte hartzea, gainbegiratzea edo zuzentzea.
- Sozietatearen kontratazioetarako beharrezkoa den dokumentazio tekniko guztia prestatzea.
- Sustatutako obrek behar dituzten lizentzien, sektore baimenen, abiarazteen, jardueren, babes publikoko kalifikazioen eta abarren administrazio izapideak kudeatzea.
- Sustatutako obren mantentze lanak planifikatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko lanak egitea.
- Hierarkian gorago daudenek agintzen dizkieten gainerako egiteko guztiak, lanpostuari eta titulazioari lotuta egonez gero.

BIGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek oinarri orokorren 3.1) puntuan eskatzen den dokumentazioa bidali behar dute posta elektronikoz helbide honetara: 202501aad@qualisconsultores.es

Eskaerak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 9ra arte izango da, egun hori barne.

HIRUGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA PROZESUA DISEINATZEA ETA PROBAK BALORATZEA:

1. FASEA: GAITASUN TEKNIKOAREN BETEKIZUNAK, ESPERIENTZIA. (Gehienez 100 puntu)

1.1- GAITASUN TEKNIKOAK

Baldintza:

- Arkitekto titulua edo Arkitekturako gradua, gaikuntza masterrarekin.
edo
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzako titulua edo Ingeniaritza Zibileko gradua eta Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritzako masterra.

Puntuazioa: nahitaezko betekizuna.

Egiaztapena: kasuan kasuko titulua aurkeztuta.

Betekizuna: B motako gidabaimena.

Puntuazioa: nahitaezko betekizuna.

Egiaztapena: kasuan kasuko txartela aurkeztuta.

Betekizuna: euskarako B1 maila.

Puntuazioa: nahitaezko betekizuna.

Egiaztapena: kasuan kasuko titulua aurkeztuta edo egiaztatzeko proba eginda.

1.2.- ESPERIENTZIA:

Betekizuna: 8 urtetik gorako lan esperientzia eskatutako titulazioari dagozkion lanetan (ez da kontuan hartuko irakaskuntzan, ikerketan eta antzekoetan izandako esperientzia).

Puntuazioa: nahitaezko betekizuna.

Egiaztapena: CV-a, eduki profesionalen zinpeko adierazpena eta lan bititza eguneratua aurkeztuta.

1.3- LANPOSTUAREN ZEREGIN ESPEZIFIKOEI BURUZKO ESPERIENTZIA ETA PRESTAKUNTZA (gehienez, 100 puntu)

Betekizuna: eraikuntza eta urbanizazio proiektuak gainbegiratzeko, idazteko eta kudeatzeko eginkizunak dituzten lanpostuak betetzea industria eta bizitegi eremuan.

Puntuazioa: 20 puntu.

Betekizuna: plangintza dokumentuak idatzi, gainbegiratu eta kudeatzeko eginkizunak dituzten lanpostuetan aritzea.

Puntuazioa: 20 puntu.

Betekizuna: industria eta bizitegi eremuan urbanizazio eta eraikuntza obretan parte hartzeko, haiek gainbegiratzeko edo zuzentzeko eginkizunak dituzten lanpostuak betetzea.

Puntuazioa: 20 puntu.

Betekizuna: administrazioaren eremuan kontrataziorako laguntza teknikoko eginkizunak dituzten lanpostuak betetzea.

Puntuazioa: 15 puntu.

Betekizuna: sustatutako obrek eskatzen dituzten baimenen administrazio kudeaketako eginkizunak dituzten lanpostuak betetzea, hala nola lizentziak, baimen sektorialak, abian jartzeak, jarduera, babes publikoko kalifikazioak lortzea, etab.

Puntuazioa: 20 puntu.

Betekizuna: sustatutako obrak planifikatzeko, kudeatzeko eta mantentze lanak kontrolatzeko eginkizunak dituzten lanpostuak betetzea.

Puntuazioa: 5 puntu.

1.3ko betekizun guztiak egiaztatzea: curriculum memoria, esperientzia zehaztuta eta baloratu daitekeen jarduera bakoitzean emandako denbora tarteak banakatuta (gehienez ere, 30 orrialde, roboto motako letran eta gutxienez 10eko tamainan).

2. FASEA: HIZKUNTZEN BETEKIZUNA. (Gehienez, 5 puntu)

2.1. EUSKARA

Eskakizuna, baloratzekoa: C2

Puntuazioa: 2,5 puntu

Eskakizuna, baloratzekoa: C1

Puntuazioa: 1,5 puntu

Eskakizuna, baloratzekoa: B2

Puntuazioa: 1 puntu

2.1. INGELESA

Eskakizuna, baloratzekoa: C2

Puntuazioa: 2,5 puntu

Eskakizuna, baloratzekoa: C1

Puntuazioa: 1,5 puntu

Eskakizuna, baloratzekoa: B2

Puntuazioa: 1 puntu

2. faseko betekizun guztiak egiaztatzea, kasuan kasuko titulua aurkeztuta.

3. FASEA: LANPOSTURAKO EGOKITASUNARI BURUZKO PROBA

- **Nahitaezkoa eta baztertze indarrekoa (GAI – EZ GAI).**
- 1. eta 2. faseetako zenbaketa orokorrean gehienez ere 10 puntuazio onenak lortu dituzten izangaiak egingo zaizkie probak, betiere gutxieneko puntuazioa 60 puntukoa bada.
- Nortasunari eta gaitasunei buruzko proba psikometriko bat edo gehiago egingo dira izangaiak lanpostuaren profilerak eta bete beharreko eginkizunetara egokitzen diren baloratzeko.
- QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SL sozietateak txosten oso bat egingo du, 10 izangai finalistei elkarrizketa egin ondoren.
- Gai diren izangaiak hurrengo fasera igaroko dira.

4. FASEA: ELKARRIZKETA PERTSONALA (gehienez 30 puntu) eta PROBA TEKNIKOA (gehienez 30 puntu)

- **Nahitaezkoa da.**
- Elkarrizketa pertsonala eta proba teknikoak 1. eta 2. faseen ondorioz hautatutako 10 pertsonen gehienez.
- Proba teknikoak 3. faseko profilerak egokitzeko probaren deialdi berean egingo dira. Proba horren balorazioa 4. fasean egingo da. Proba teknikoak baloratzean, probako gaiei buruz zenbateraino dakiten baloratuko da. Gai horiek lotura izango dute hautaketaren xede den lanpostua betetzeko izan behar den gaikuntzarekin.
- Elkarrizketa hautaketako epaimahaikideek egingo dute AGAren egoitzan, eta ardatz izango ditu lanpostuko trebetasun orokorrak eta zeharkakoak. Elkarrizketa bat baino gehiago egin ahal izango da, hautaketa organoak hala erabakitzen badu.
- Elkarrizketa horretan honako gaitasun eta ezagutza hauek baloratuko dira:
 - Antolatzeko gaitasuna.
 - Enpresako taldean integratzea eta elkarlana
 - Ekimena.
 - Komunikazio trebetasunak.
 - Berrikuntzaren aurrean zer jarrera daukan interesdunak
 - Lanpostuaren eginkizunei lotutako beste ezagutza batzuk, betekizun gisa definitu ez direnak.

- Elkarrizketaren puntuazioa eskala honen arabera aztertutako gaitasunetako bakoitzean lortutako puntuazioen batura izango da:
 - Ez du gaitasunik: puntu 1.
 - Hobetu beharreko alorrak ditu argi eta garbi: 2 puntu
 - Gaitasuna garatze fasean du: 3 puntu.
 - Gaitasun maila aurreratua du: 4 puntu
 - Gaitasun maila bikaina du: 5 puntu
- Gutxieneko atalase hau ezartzen da: 18 puntu. Hautagairen bat eskatutako gutxieneko atalasea iristen ez bada, hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.
- Elkarrizketa pertsonala amaitutakoan, akta jaso eta izenpetuko da, eta bertan, epaimahaikide guztiek emandako puntuazioak agertuko dira.
- Elkarrizketaren eta proba teknikoaren balorazioa batera jasoko dira aktan.

FASE BAKOITZEKO PUNTUAZIOEN LABURPENA:

1. FASEA	2. FASEA	3. FASEA	4. FASEA	GUZTIRA
100	5	Ez dagokio	60	165